



Lanak hasi dira daborduko, Gaztelumendiko plazatxoak berritzeko, adinekoentzako eta adin txikiko pertsonentzako ariketa-jolaslekuekin, bankuekin eta "pet friendly" iturriarekin

53 aparkaleku gehiago Gaztelumendin eta Elorrin, hobekuntzak irisgarritasunean eta argiztapenean eta egonleku berriak

Aste honetan hasi dira Algortako Elorri eta Gaztelumendi kaleetan espazioa berrantolatze eta birbanatzeko lanak, eta ondorioz aparkaleku-plaza gehiago sortuko dira. Izan ere, Sarrikobaso aldean egindako *Getxo Txukun* parte-hartze prozesuan herritarrek planteatutako beste eskaera bat da. Elorri 18 plaza irabaziko dira, 42 izango dira guztira, eta Gaztelumendin 35 gehiago, 87 guztira. Gainera, irisgarritasuna hobetuko da espaloiak jaitsez eta zabalduz.

Elorri, Gaztelumendi eta Kasune (zati bat) kaleak ere asfaltatuko dira berrir, eta Gaztelumendiko plaza txikiaren egonlekua berrituko da, adineko eta adin txikiko pertsonentzako ariketa-jolaslekuekin, bankuekin eta pet friendly iturriarekin. Halaber, iturriak berrikusiko dira eta zakarrontzi berriak jarriko dira inguruan.

Inguru horretan sodio-lurrunezko luminarien ordez led luminariak jarriko dira. Guztira, 119 argi berrituko dira auzoko zenbait kale eta parkeetan.

Lanak egiteko epea 11 astekoa da. "Esku-hartze hau Sarrikobason 'Getxo



Txukun' ekimenaren bidez egindako entzute- eta partaidetza-prozesutik sortutako proiektu nagusietako bat da, eta egindako ekarpenak auzoa hobetzeko jarduerak zehatzetan pixkanaka nola gauzatzen diren erakusten du. Ekimen honetara bideratu ditugun 200.000 euroekin planteatutako jarduketak guztietara iristen ez ginenaz, 165.000 euro gehiago gaitu ditugu horiek bete ahal izateko. Guztira, 365.000 euro inbertituko ditugu", adierazi du Amaia Aguirre alkateak.

"'Getxo Txukun' prozesutik hainbat jarduketa mota sortu ziren: batzuk

mantentze- eta hobetze-lan txikiak, dagoeneko gauzatzen joan direnak, eta jada herritarrei jakinarazi zaizkienak; eta beste batzuk, irismen handiagokoak, hautemandako beharretatik eratorritakoak, horien artean Gaztelumendi, Elorri eta Kasune kaleetako esku-hartze hau. Gainera, gaur egun saneamendu eta hornidura sareak berritzen ari dira, eta, aurrerago, lantzen ari garen Sarrikobaso kalearen beraren berrurbanizazio integralerako proiektua ezagutaraziko dugu", azpimarratu du Janire Ocio Azpiegitura, Obra eta Zerbitzuetako zinegotziak.